



Usurbilgo Udala

## 2022KO OTSAILAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Oskar Santamaria Pikabea  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Andoni Atxega San Sebastian  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Luken Arkarazo Silva.

Arratsaldeko 18:11etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko otsailaren 24ean arratsaldeko 18:11etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO URTARRILAREN 26TIK OTSAILAREN 18RA (2022/0052-2022/0157).**

Josune Urkolak 2022/156 dekretuari buruz galdetu du. Nora Erdozia arkitektoaren kontratazioari buruzko dekretu honetan Pertsonal, Antolakuntza eta Kontratazio teknikariak kontrako txostena egin duela dio eta azalpenak eskatu ditu.



Usurbilgo Udala

Alkateak azaldu du HAPOa egiteko programa bat jarri zela martxan, programa horren iraupena amaitu dela eta HAPOa ez dagoela bukatuta. Dekretu hau egiteko memoria bat prestatu zuela adierazi du ikusteko nahi baino gehiago zergatik luzatu den. HAPOa idazteko moduak nahi baino gehiago atzeratzera eraman dituela esan du, eta modua dionean esan nahi duela dio parte-hartzean oinarrituta ari direlako eta batez ere adostasunak eta elkarlanak bilatu nahian.

Azken urteetan lanketa guzi honetan parte-hartze saio ugari egin direla esan du, auzoz-auzo, eremuz-eremu.

Parte-hartze prozesuetaz gain, beraiantzako garrantzitsua dela dio hirigintza eremu eta sektore ezberdinetan lur-jabeekin egiten ari diren lanketa xehetua. Honek lan-ordu asko suposatu dituela dio HAPOari begira adostasunak lortzeko asmoz.

Era berean, gaineratu du hirigintza batzordera ere eraman dutela informazioa emateko.

Uste dute herri honen etorkizunarentzako klabea den tresna honetan denek dutela zeresana, eta horretarako direla parte-hartzea eta adostasuna.

Alkateak jarraitu du esanez azken fasean daudela eta hasierako onespina ekaineko plenora eraman nahiko luketela.

Fase honetan egonik, bere buruan ez zela sartzen dio Nora ez zen beste arkitekto batek HAPOaren erredakzioa amaitzea, ezta ondorengo pausoak ere. Jarraian, prozedura zein den azaldu du, hasierako onespina eman ondoren, parte-hartze fasea irekiko litzateke alegazioak aurkezteko eta jarraian behin behineko onarpena emango litzaioke. Jarraian, COPUra bidali beharko dela eta hemendik bueltan datorrenean behin betiko onarpena emateko Foru Aldundira bidali beharko dela zehaztu du. Beraz, argi ikusten zutela dio orain arteko lanketa egin duen arkitektoak jarraitu behar zuela behin behineko onespina eman arte.

Kontrako txostena badagoela dio baina aipatutako arrazoiengatik bere erabakia hori izan dela azpimarratu du.

Josune Urkolak adierazi du dekretuan bertan aipatzen dela 11 hilabeteko atzerapen bat izan duela, udal arkitektoaren gaixotasun-bajan HAPOa egiteko kontratatuta zegoen arkitektoari eman zitzaizkiolako lanak.

Alkateak erantzun dio aurreko legealdian hartu ziren erabakiak izan zirela.

Josune Urkolak erantzun dio hiru legealdi daramatzatela kontu honekin eta azkenengo momentuan horrelako erabaki bat hartzea ez zaiela ondo iruditzen adierazi du.



Usurbilgo Udala

Hemen teknikariaren aurkako txostena egonda alkateak bere eskumenak erabiliz erabakia hartu duela esan du, idazkariari galdetu dio honek ze ondorio izango lituztekeen.

Idazkariak erantzun dio kontrako txostenen aurka erabakiak hartu daitezkeela, txostenak ez direla lotesleak esan du. Ondorioak zeintzuk diren aztertu egin beharko litzatekeela dio, hori ezin dela momentuan erantzun. Txostenean programa ez luzatzeko arrazoiak jasotzen direla esan du eta egokiena litzatekeela dio hau irakurri ondoren, galderak luzatzea.

Espedientearen parte den txostena Josune Urkolari pasako zaiola esan da.

Beñat Larrañagak gehitu du programa bat abiatzen dela ezohiko lan bat egiteko, ulertuz ez dela betirako egongo den lan estruktural bat. Gaineratu du momentu berezi bat bizitzen ari direla, Espainiako estatuak estabilizazio plan bat onartu dutela non administrazioek betekizun batzuk dituzten eta hor aipatzen da estrukturalak diren lanpostu horiek egonkortzeko beharraz. Baina kasu honetan, programak jasotzen duen lan hori bukatzen denean, programa ere amaitu egingo dela zehaztu du.

Laister onartuko duten estabilizazioko OPEak erakusten duela dio administrazioa urte luzeetan langileek modu irregular batean harremandu dela.

Orain eskuartean duten kontu hau ez dagoela zuzenki lotuta dio, baina kontestuan momentu honetan justu zerikusia baduela uste du.

Alkateak Beñatek esan duenari erantsi dio udaleko arkitektoaren joan-etorriak ugariak direla eta horiek asko zailtzen dutela sailaren martxa. Horri gehitu behar zaiola dio asko kostatzen dela ordezkioak topatzea, eta topatzen direnean asko kostatzen dela ere egunean jartzea. Horrela ulertzen duela dio aurreko legealdian hartu ziren erabakiak, 11 hilabeteko eten horretan adibidez, lehentasuna emanez herritarrei kalitatezko zerbitzua emateari.

Bestalde, balioan jarri behar dela dio oso udal gutxi direla HAPOaren lanketa nahiz eta programa bat izan baliabide propioekin egiten dutela, ohikoena kanpoko arkitekto edo enpresei esleitzea dela adierazi du, eta horrek urruntze bat ekartzen duela.

Josune Urkolak adierazi du kanpoko arkitektoek lanketa egiteak ez duela zertan urruntze bat ekarri. Agian HAPOaren lanak utzi eta udal arkitektoaren lanak egitera pasa zen momentua izan zitekeela dio esatzeko "honek ezin du horrela jarraitu" eta ez utzi horrenbeste denbora luzatzen.

Alkateak erantzun dio bere ustez erabakia egokia izan zela eta berresten dela dio HAPOa baliabide propioz egitearekin.



Usurbilgo Udala

Alkateak 2022ko urtarrilaren 26tik otsailaren 18ra bitartean (2022/0052-2022/0157) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **2.- MOZIOA: MARTXOAK 8, BERDINTASUNAREN LEGEA BERRITZEA, BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA INDARTZEA.**

Hasteko, batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez onartu dute plenoan tratatzea.

Alkateak adierazi du mozio hau Eudeletik jasotako mozioa dela, bertan alderdi guztiek adostutakoa.

Jarraian, alkateak mozioa irakurri du.

Batzarkideek aho batez onartu dute martxoaren 8ko mozioa, honela dio mozioak:

“2022ko MARTXOAREN 8a DELA-ETA ADIERAZPENA

### **Berdintasunaren Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea**

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarrean eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nor bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da



Usurbilgo Udala

gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzungo dion tresna bat emateko.

**Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen**, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.

Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdintasunarekin, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduntzean; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobreziaren feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bizitza askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.

Horregatik, martxoaren 8an, Usurbilgo udalak konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeke, eta behar diren baliabideak emateko.

Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko **baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak** indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean **generoaren eta giza eskubideen** ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- **Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza** bultzatzea, oinarrizko, derrigorrezko eta etengabeko **prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz**.
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema** zabaltzea, gure eskumenen esparruan, **detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan** aurrera eginez, **neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta**



Usurbilgo Udala

**haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitortpena aintzat hartuz.**

- **Ikuspegi intersektionalaren** integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.
- **Herritarren sentsibilizazioan** sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.
- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean** garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.
- **Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak** hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea.

**Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrietan antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!”**

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.

### **3.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:35ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**